



Kristau alkarteko katekistei

Bilbao, 2007.eko maiatzaren 3a

Lagunok:

Hemen gaukazuez barriro ere, oraingo honetan, udako ekintza bat eskeintzeko.

Udaldian neskato-mutiko bakoitzak postala idatzi deiola katekistari, non dagoan, nogaz, zer egiten dauan... esanez. Katekesiko taldeagaz hartuemona ez galtzea eta, zelan edo halan, hurrengo kurtsoagaz 'lotzea' da helburua. Katekistek, katekesiko iraileko lehenengo saioan, umEEK bialdu deutseezan postalak aurkeztuko dabez.

Gauzak errezteko, katekistak bere helbidean dauan gutunazal frankeatua banatuko deutse neska-mutikoei, eta horregaz batera, oharra familiarentzat, proposamen honen barri emonez (gutun honi erantsiko deusagu eredua).

Zeinu apal hau zuon taldeentzat interesgarria izango dalakoan, agur t'erdi!

Katekesirako Elizbarrutiko Ordezkaritza



Bilbao, 2007ko maiatza

.....(r)en aita eta ama:

Maiatzaren azkenean gagoz eta datorren ekiturtera arte ez dogu katekesirik izango. Katekesirako Ordezkaritzatik ekintza bat proposatu deuskue, udaldian gure seme-alabekin egiteko, horrela, euren lagun taldea gogoan izan dagien, eta parrokian egitea erabagi dogu.

Honetan datza: zuon seme-alabak bialdu dagidala niri, bere katekistari, postal bat uda igarotzen diharduzuen lekutik eta bertan kontatu deiela bere lagunei non dagoan, nogaz, eta zer dauan gustokoen egiten ari danetik. Datorren ekiturteko katekesiko lehen egunean batera jarriko doguz postal guztiak, neska-mutiko bakoitza taldekideez gogoratu dala erakusteko.

Mesedez, gogoratu egiozue zuon seme-alabari egiteko hau. Gauzak errezteko, nire helbidea dauan gutunazal frankeatua banatu dogu.

Uda zoriontsua igaro dagizueta familian eta datorren ekiturtean alkar ikusi dagigula barriro ere! Agur t'erdi!